

ESPAINIAKO CARITASEN 82. BATZAR OROKORRA
El Escorial, 2023ko ekainaren 29a eta 30a

Badago itxaropena. Garai berri baterako boluntarioritza

Caritaseko Boluntarioritzaren Estrategia konfederala
eraikitzeko prozesua

SARRERA

Dokumentu honen helburua da laburbiltzea azken lau urteetan Caritasen Boluntariotzaren gaiaren inguruan eraikitzen joan diren ezagutza, informazio, hausnarketa eta erronka guztiak. Bertan jasotzen da gai horren oraingo momentuaz pentsatzen dugunaren diagnostiko partekatua. Halaber, dokumentu honetan adierazten da zein diren etorkizunean landu beharreko esfera nagusiak; hau da, nora zuzendu behar ditugun gure esfortzuak.

Garrantzitsua iruditzen zaigu konfederazio osoan testu beraren inguruan lan egitea. Hori dela eta, uste dugu dokumentu hau kontuan har daitekeela Caritaseko 82. Batzar Orokorrean ere, boluntariotza bezain garrantzitsua den gai baten inguruan hausnartzerakoan.

Zertarako? Dokumentu hau oinarri komun bat da, eta aukera ematen du datozen urteetarako Konfederazioaren helburu estrategikoak definitzeko, eta elizbarrutietako eta eskualdeetako boluntariotza-planen garapena orientatzeko. Oinarri partekatua da, aukera izan dezagun “nola egin” pentsatzeko eta adosteko.

“Nola egin” horiek ez dituzte ahaztu behar, Caritasen eta Jainkoaren maitasuna gauzatzean, boluntario izateak esan nahi duenari lotutako funtsezko gaiak. Zentzuak izan behar du lehentasuna, funtzionaltasunaren ginetik. Gure identitatea mantenduko edo errespetatuko duen boluntariotza behar dugu, zeina ez baita bihurtuko funtzionala zereginarentzat, baizik eta zentzuarentzat, hots, Jesusen begiradapean pertsonan, komunitatean eta errealitate sozialean gauzatzen den eraldaketaren zentzuarentzat.

Dokumentu hau dokumentu irekia da, dinamikoa eta amaitu gabea, eta Konfederazioaren espazio eta leku esanguratsuei buruzko gogoeta eta proposamenak gehitzen joan behar ditugu.

Garrantzitsua iruditzen zitzaigun dagoeneko ezagutzen dugun metodologiarekin lan egitea: *ikusí, epaitu, ekin eta ospatu*. Dokumentu hau lehenengo bi pausoetan zentratzen da; izan ere, uste dugu ekitea eta ospatzea prozesu honetako aurreragoko momentuetan sartu beharko liratekeela.

1. IKUSI (arretaz begiratzea)

Corpus Christi Eguneko kanpaina instituzionalak begiak irekitzera animatzen gaitu, zer gertatzen den eta inguruan zer dugun ikusteko. “Baina Jaunak esan zion Samueli: «Ez begiratu horren itxurari eta luzerari. Alde batera utzia dut nik hori. Kontua ez da gizakiak zeri begiratzen dion, gizakiak itxurari begiratzen baitio; Jaunak, berriz, bihotzari»” (1Samuel, 16,7). Begirada errealitate honetara irekitzeko gonbidapen gisa, pentsa dezagun zer gertatu zaigun orain arte eta zer datorren.

1.1. Aurrekariak

Atzeraldi Handiak (2008-2016) haustura eragin zuen etengabeko hazkundearen eta ongizatearen ilusioan, horrek gizartea itsutzen baitzuen. Nolabait, bititzen ari ginen garai-aldaketaren ohartarazpen handia izan zen. Kontziente ginen Caritasen, haustura horren aurretik eta ondoren, gero eta handiagoa zela gizarte-bazterkeriaren eta zaugarritasunaren espazioa. Aurrerago, COVID-aren krisiak zalantza guztiak uxatu zituen: zaugarritasuna gizarte osoan modu transbertselean bititzea eragin zuen.

Zaugarritasun hori foku berri batzuetan islatu da; adibidez, arrakala digitalean, etxebizitza-eskubidea lortu ahal izatearen inguruko politika eraginkorren faltan eta egoera horren ondorioetan, egoera administratibo irregularrean dauden pertsona migratzaileen egoera larriagotzean, landa-ingurunearen abandonuan, etengabeko larrialdi-egoerak mugigaitz bihurtzean, gure ekintzaren jasangarritasun ekonomikoaren erronketan...

Zaugarritasuna ez da gertatzen soilik bizi garen gizarte-ereduan eta gugana hurbiltzen diren pertsonen bizitzetan. Eliza ere zaugarria da, eta horren isla da Caritasen Gizarte Ekintza. Denbora daramagu gure komunitate kristauen ahultzea ikusten, eta haiek dira gure nukleo garrantzitsuenetako baten iturria, hots, boluntarioena. 2014tik aurrera egonkortu egin zen pertsona boluntarioen kopuruak 2000ko hamarkadan izan zuen gorakada iraunkorra, eta behera egiten hasi zen 2017tik aurrera. Urte horretatik, % 13 murriztu da gure boluntarioen taldea.¹


¹ 2007-2021 Memoria Konfederalak

Pertsona boluntarioen kopuruak murrizteak ez du esan nahi aukera berriak ere sortu direnik; esaterako, gero eta parte-hartzaile gehiago hastea boluntariotzan, gure agenteek interesa izatea formakuntza jasotzeko eta errealitate berri horiei erantzuteko, laguntza digitalaren esparrua esploratzea komunitatearen aldeko apustua ahuldu gabe, etab.²

Errealitate horrek, inoiz baino gehiago, une honek eragin dituen errealitate eta behar berriei adi egotera bultzatzen gaitu. Adibidez: kontuan hartu behar al dugu boluntariotzaren zentzuaren aniztasuna gehitzeko beharra, komenigarritasuna eta modua ere, boluntariotza egonkorraren eta esperientziadunaren balioa galdu gabe?

Boluntariotzaren esperientzian zehaztu eta gehitu beharreko bide berriak sortzen dira. Oso sekularizatua dagoen gizarte batean, ekintza boluntarioaren interes eta adierazteko modu berriek talka egiten dute historikoki ekintza boluntarioa ulertu izan dugun moduarekin. Boluntariotza-eredu berri horietan, nahasi egiten dira gero eta kualifikazio eta prestakuntza handiagoa, kritika-gaitasun handiagoak eta boluntariotza modu indibidualizatuagoak eta esperientziaz bustiagoak dituzten pertsona boluntarioak. Bi boluntariotza-mota daude aldi berean: bata, oso identitarioa eta konprometitua fedean duen oinarriarekin; bestea, solidaritate handian oinarritua, baina filiazio erlijioso ahulagoa duena. Gizarte-boluntariotzaren formen eta moduen espezializazioak (filiazio txikiagoa, zeregin zehatzekiko lotura, boluntariotza korporatiboa, etab.) eta Parrokiak boluntario-iturri gisa duen funtzioa murrizteak errealitate berri baterantz bultzatzen gaituzte.

1. grafikoa: Espainian Caritaseko boluntario diren pertsonen kopuruaren eboluzioa



Iturria: Espainiako Caritasen Memoria Konfederala

² "Agertokiak prestatzen: ekintzarako orientabideak" dokumentua

COVID-aren krisiak, tsunami baten modura, bizkortu egin zituen egituraren eta pertsona boluntarioen inplikazio-aukeren inguruko aldaketak. Batetik, boluntario nagusienak —oro har eta a priori, formakuntza txikiagoa dute arlo digitalean—, batzuetan atzean gelditu ziren, eta ordura arte garatzen ari ziren laguntza eskaintzeari utzi zioten; eta, bestetik, dirudienez, profil berriko boluntarioak elkartu ziren: gazteagoak eta ingurune digitala ezagutzen dutenak.

Dena dela, premisa horiek gure Caritas gehienetan bete baziren ere, ohar bikoitz bat aipatu behar da. Lehenik eta behin, adinez nagusienak ziren boluntarioen zenbait profilen “abandonuaren” eragile nagusia ez zela izan arrakala digitala, baizik eta urruntze sozialeko neurriak eta pertsona horiek kutsatze posibleetatik babesteko nahia, haien osasuna arriskuan ez jartzeko. Bigarrenik, egia bada ere digitalizazioak boluntario gazteagoak ekarri zituela Caritasera, hori ez dela izan boluntario gazteengana heltzeko bide bakarra, eta, batik bat, ezinbestekoa dela eredu hori presentzialtasunarekin konbinatzea, baldin eta lortu nahi badugu Caritasen misioarekin eta identitatearekin benetan inplikatzeko. Gure gogoetetan garrantzia hartzen joan diren erronken artean daude, besteak beste, belaunaldien arteko hartumana, boluntariotza uzten ari diren boluntario oso adindunak, boluntario gazteagoak erakartzea eta laguntzea, boluntarioen arteko arrakala digitala, eta agenteen arteko zaintza sartzeko beharra.³

Espainiako Caritasen V. Plan Estrategikoak dagoeneko heldu die aipatutako alderdi batzuei, hau planteatzen baitu 3.2 helburuan: “Caritaseko boluntariotza indartzea eta gazteago egitea, horretarako sustatuz belaunaldien arteko harremana, parte hartzeko espazio berrien sorrera eta Caritaseko kide aktibo diren boluntarioen profilararen dibertsifikazioa”. Asmo horrekin planteatu ziren zenbait ekintza, batetik, zentzu horretan sentsibilizazio-bideak garatzeko, boluntarioek parte har dezaketen beste arlo batzuk esploratuz; eta, bestetik, berriz bideratzeko Caritaseko boluntariotzaren ibilbidea, kontuan hartuta aldatzen ari direla garaia eta Elizaren egoera. Gauzatze-fasean daude ekintza horiek guztiak.

Boluntariotzaren zaugarritasun gero eta handiagoari aurre egiteko estrategiak bideratzen joateko ardura hori landu zen Espainiako Caritasen Konfederazioaren 80. Batzarrean, eta, lehen aldiz, XXI. mendeko bigarren hamarkada honetako erronketan jarri zen fokua. Erronka horien artean, zenbait lan-ildo azpimarratu ziren, hala nola belaunaldien arteko erreleboa eta harremana, formakuntza indartzea, zaintzara bideratutako baliabideak handitzea, boluntario gazteak, boluntario berriak, etab.⁴

³ “Agertokiak prestatzen: ekintzarako orientabideak” dokumentua

⁴ XXI. mendeko Caritas: 81. Batzar Orokorrean planteatutako erronkak, lantaldeen ondorioen laburpena


Gai horrek gure gogoeten parte izaten jarraitzen zuenez, Caritaseko Boluntariotzaren egoeraren argazki osatuagoa ikusteko beharra sortu zen. Asmo horrekin egin zen, 2022an, Caritaseko Boluntariotzari buruzko II. Inkesta Konfederala. Inkesta horrek gure egoerari buruzko informazio zehatza eman zuen. Emaidza horiek, jarraian ikusiko dugun bezala, nora begiratu jakiteko oinarria zehazten dute.


1.2. Caritaseko boluntariotzaren errealitatea

Boluntariotzaren errealitatea ikusteko, orain arte egindako ikerketen bitartez lortutako informaziotik abiatu behar dugu. Horrez gain, loturak ezarri behar ditugu garenaren eta testuinguru sozialak gudan duen eraginaren artean. Hori dela eta, ezinbestekoa da jakitea, batetik, nondik gatozen, eta, bestetik zer datorren eta zerk aldatzen gaituen.


1.2.1. Nondik gatoz?


Caritaseko boluntarioen gehiengoaren profila, funtsean, ez da aldatu azken urteetan. Alderdi hauetan laburtu liteke argazkia:


PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA	
	<ul style="list-style-type: none"> – 3tik 2 emakumeak dira – % 50ek 45 eta 65 urte artean ditu; % 37k, 65etik gora – % 11k 40 urte baino gutxiago ditu – 3tik 2k goi-mailako ikasketak dituzte – 2tik 1 pentsioduna da – 3tik 2 lan-merkatutik kanpo daude
GAZTEAK (18 eta 30 urte artean) ⁵ : % 3k 30 urtetik behera ditu	

IDENTITATE-PROFILA	
	<ul style="list-style-type: none"> – % 80k dio katolikoa dela – 2tik 1 parrokiako ingurutik dator – 10etik 6ren iritziz, boluntariotzak lagundu egiten dio Caritasen ekintzari, eta Eliza osoaren konpromisoa erakusten du – 2tik 1 ekimen propioz iritsi zen Caritasera
GAZTEAK (18 eta 30 urte artean): % 70ek dio katolikoa dela	

⁵ Boluntario diren pertsonen profila ez da zehazten gehiengoari buruzko datu kuantitatiboan arabera soilik; aitzitik, beste irakurketa batzuk ere eskaintzen ditugu, horren kuantitatiboak ez diren baina haiek bezain garrantzitsuak iruditzen zaizkigun datuekin. Adibidez: gazteak.

KONPROMISO-PROFILA	
	<ul style="list-style-type: none"> – 2tik 1ek 5 urte baino gehiago daramatza Caritasen – 3tik 1 multiboluntarioa da (horien erdia, Elizako beste espazio batzuetan) – 2tik 1ek astero laguntzen du, eta % 20k egunero
<p>GAZTEAK (18 eta 30 urte artean):</p> <ul style="list-style-type: none"> – 3tik 2k hiru urte baino gutxiago daramatza Caritasen – 10etik 2 multiboluntarioak dira – % 40k noizean behin laguntzen du 	

LAGUNTZAREN PROFILA	
	<ul style="list-style-type: none"> – 10etik 7ren ustez, nahikoa eta kalitatezkoa izan da jasotako formakuntza – 10etik 8k maiztasunez jasotzen dute Elizbarrutiko Caritasen informazioa/komunikazioa – Deskribatzen duten laguntzaile nagusia da parte hartzen duten proiektuko arduraduna – Boluntarioek sentitzen dute asko balioesten direla – 10etik 6k ez dakite beste boluntarioek zergatik uzten duten boluntariotza eta zer harreman duten gero Caritasekin
<p>GAZTEAK (18 eta 30 urte artean):</p> <ul style="list-style-type: none"> – Oro har, sentitzen dute ez daudela helduagoak bezain informatuak – 10etik 6 ahoz-ahokoaren bitartez iritsi ziren – Sentitzen dute laguntzen zaiela, bai boluntariotza hastean, bai uzten dutenean 	

ZEREGINEN PROFILA	
	<ul style="list-style-type: none"> – 10etik 7k parte hartzen dute zer zeregin eta nola gauzatuko den erabakitzekeko prozesuan – 3tik 2k, beren zeregina gauzatzean, kontaktu handia izaten dute parte-hartzaileekin – Orokorrean, ez dituzte tresna digitalak erabiltzen boluntariotza-lanak egiteko

Datu horiek 2016-2022 arteko aldiari dagozkio, garai horretan egin baitziren Caritaseko boluntariotzari buruzko azken ikerketak, baina profilaren egonkortasun horrek ez du esan nahi ez dela ikusten aldaketarako joerarik. Gehiengoaren profilaren atzean ezkututzen diren errealitate batzuk eragina izaten hasi dira gure boluntariotzaren esparruan.

1.2.2. Zer dator, eta zerk aldatzen gaitu?

Aski ezaguna da gero eta ahulagoa dela gure boluntario-iturri nagusia, hots, kristauen komunitatea. Gertakari erlijiosoak gure gizartean duen garrantzia galtzearen eraginez, aldatzen ari da solidaritatearen zentzua bera ere. Gure kasuan, zenbait joera ikusten dira, eta joera horiek kontuan hartu behar ditugu ekintzarako proposamen zehatzak pentsatzerakoan. Gure etorkizuna markatzen duten hamar joera aurkeztuko ditugu jarraian.

1. Gero eta zaharragoak gara

Dagoeneko bagenekien gure boluntarioen ezaugarrietako bat adindunak izatea dela eta, proportzionalki, zenbat eta zaharrago izan, orduan eta presentzia handiagoa izan ohi dela Caritasen. Pandemiak, eztanda baten modura, pertsonen bat-bateko murrizketa eragin zuen. Boluntario-kopurua murriztu egin zen, eta, sarritan, boluntario horiek ez zuten laguntzarik jasotzen irtetean. Tradizionalki, zereginaren erreleboa hartzen zuten belaunaldi berrien bitartez berritzen zen boluntarioen taldea. Alabaina, errelebo hori gertatzen ari den intentsitatea ez da nahikoa ekintzaren bolumena edo ekintza-mota bera mantentzeko.

Caritaseko taldeak, maila guztietan, boluntario gazteak sartzeko esfortzua egiten ari dira, baliabideak eta esfortzuak jarritz. Zentzu horretan, lehenengo irudipenek adierazten dutenez, errelebo naturala ez da etorriko, hainbeste, bide horretatik, baizik eta tarteko belaunaldietako boluntarioak bultzatuzetik. Boluntario horiek, oraindik ere, gure gaur egungo boluntariotzaren iturrietatik edan dute, eta, aldi berean, dagoeneko bere egin dituzte garai berri honetako modu eta jokabide batzuk. Boluntario gazteago horiek (40 eta 65 urte artekoek), lana uzteko etapara heltzen eta gero eta intentsitate handiagoz inplikatzeko doazen heinean, boluntariotzaren parte bihurtuko dituzte bestelako ezaugarri batzuk, baina ezaugarri horiek ez dira orain artekoak bezalakoak, jarraian ikusiko dugun bezala.


2. Konpromisoak likidoagoa izateko joera du

Adinak behera egiten duen heinean, eta bizi garen gizartean solidaritate-formak aldatzen doazen heinean, aldaketak ikusten dira konpromisoan. Militantzia-maila altua, arduraldia, komunitate kristau baten ibilbide historikoaren sendotasuna, Elizaren esparruko multiboluntarioak eta abar izatetik, gure artean beste era bateko boluntarioak izatera ari gara pasatzen: konpromiso puntualagoarekin, lotura txikiagoekin, eta fedea desagertuz doan solidaritate-aukera indartsuarekin. Ezin dugu ahaztu gure boluntarioak, gehienbat, lanik egiten ez duten pertsonak direla. Lan-egoera horretara iritsi ez diren boluntarioen konpromisoaren sustapena landu beharko da, eta orain arte landu izan diren moduak aldatu.

3. Identitateak dibertsifikatzen ari dira

Pertsona boluntario berriak sartzen direnean, Elizako eta gizarteko errealitatea heltzen da Caritasera. Gero eta neurri handiagoan, Ebanjeliotik beharrean etika sozialaren iturritik edaten duten boluntarioak aurkitzen ditugu. Dikotomia horren atzean, egiaz, nahasitako egoera-sorta ikaragarri handia dago, eta dikotomia horrek berak osatuko du, modu konstantean, gure boluntarioen komunitatea (gure agenteak eta parte-hartzaileak, oro har). Aldagai hori beti egon izan da presente parte-hartzaileen artean, baina etorkizunean areagotu egingo da gure boluntarioen artean.

2. grafikoa: Fede erlijiosoaren intentsitatea, boluntario konprometitzeko arrazoi gisa



Iturria: 2022ko Boluntarioen inguruko II. inkesta

4. Boluntariotzaren zentzua estatikoa da

Pertsona bakoitzak bere burua boluntario ikusten duen moduak zuzeneko lotura du identitateen dibertsifikazioarekin. Kotsentsu handia dago Caritasen barruan egiten duten ekarpenaren inguruan. Pertsona boluntarioek ulertzen dute ekarpen garrantzitsua dela beren boluntariotza, balio ugari gehitzen baitizkio gauzatzen dugun ekintzari, eta uste dute Elizak pobrezia-egoeran dauden pertsonekiko duen konpromisoaren erakusle argia direla.

Zentzua ulertzeaz gain, aipagarria da zer pentsatzen duten boluntariotza gauzatzeari buruz, Erakundearen barruan eta beren bizitzan duen funtzionaltasunari lotuta. Lehenengoari dagokionez, hamarretik zortzi baino gehiagok Caritasen lan egiten duten profesionalen laguntzaile ikusten dute beren burua. Bestalde, hamarretik ia zazpiren ustez, boluntariotza denbora libre betetzeko modu ona da. Gazteenek ñabardura txiki bat gehitzen diote argazki horri; izan ere, profesionalakiko autonomoagoak sentitzen dira, eta denbora libre betetzearen arrazoia garrantzitsuagoa da helduagoen kasuan baino.

Boluntariotza eraiki nahi dugun moduaren parte izango da bizipen horien esanahiaz galdetzea.

5. Nondik datorren ahazten ez duen eta etorkizunean proiektatzen den Caritas

Zer da Caritas, batzuek beste batzuei laguntzeko behar duten elkarte (Caritas norbaitentzat), edo behar dutenek elkarri eta beren buruari laguntzeko elkarte (norbaiten Caritas), edo beharrak dituztenek eta beharrik ez dutenek mundua aldatu asmoz elkarrekin lan egiteko elkarte (Caritas norbaitekin)? Galdera horren erantzunak zehazten du boluntarioek zer tonutan ulertzen duten Caritas. Oro har, gehienek uste dute Caritas norbaitentzat garel. Hala ere, pentsatzen dugunean zer izan nahiko genukeen etorkizunean, funtzio batzuen eta besteen artean orekatuta dagoen Caritas ikusten dugu. Oraindik “laguntzazko” elkarte gisa ikusten dugu geure burua, eta ez dugu baztertzen hala izaten jarraitzea, baina nagusi da gure egungo Gizarte Ekintzako Ereduaren balioetan haztearen zentzua.

6. Gakoa, erlazionala dena

Hamar boluntariotik seik parte-hartzaileekiko harreman estuan gauzatzen dute beren jarduera. Gainerakoek, neurri txikiagoan eta/edo gure gizarte-ekintza garatzea errazten duten beste era bateko laguntza-zereginetan zentratuta. Handitzen joan da boluntarioak inplikaturik dauden ekintzen aniztasuna, gure ekintza holistikoagoa bihurtu den heinean. Esaterako, duela zenbait urte ez zegoen komunikazio-talderik, baina gaur egun hedatu egin dira, eta boluntarioak presente daude talde horietan. Parte-hartzaileekin lotura pertsonalak eratzea izan da gure zeregin esentzial eta bereizgarrietako bat. Ildo hori guztiz ezinbestekoa da parte-hartze eta inklusio sozialari lotutako zereginetan. Gazteak bultzaka datoz funtzio hori mantentzeko/areagotzeko/babesteko...

7. Parte-hartzaileen boluntariotza... nork ez du ulertzen?

Gero eta gehiago dira gure ekintzako parte-hartzaile izan ostean boluntariotza egitea erabakitzen duten pertsonak. Esperientzia hori ez da ezezaguna duela zenbait hamarkadatik egin izan diren proiektu, parrokia edo ekimen zehatzei dagokienez. Dena dela, modu estrategikoan eta agerikoan, gure plangintzetan sartu dugunez parte-hartzea, dimentsio hori hazi egin da, eta beharrezko bihurtu da haren moduei eta formei buruz hausnartzea. Elementu erlazional horrek, zeinak gure Gizarte Ekintzaren Ereduan maila berean laguntzeko prozesu asimetrikoa zehazten baitu, boluntariotza eta bere ibilbidea ulertzeko modu berriak ekarriko ditu etorkizunean.

8. Maila bat gehiago laguntzan, ikaskuntzan eta komunikazioan


Boluntarioen aldetik, altua da laguntzaren inguruko gogobetetasuna, eta uste dute nahikoa dela formakuntza. Gazteek jasotzen duten zaintza azpimarratzen dute batez ere. Pandemiak nahikoa adibide eman dizkigu ikusteko arlo horietan hobetzen jarraitu behar dugula. Adin handiko boluntarioen urruntzeak, kontaktuarekiko beldurrak eta oso maite ditugun pertsonen heriotzak mahai gainean jarri dituzte boluntarioen kolaborazioaren amaierako irteera-, abandonu- edo parentesian jartzeko prozesuak (definitu nahi dugun bezala definitu), gai horiek ez baitira nahikoa landu. Zer legatu uzten du horrek? Beste adibide bat litzateke digitala denerako jauzia, izan tresna, leku, edo etorkizunean izan daitekeen edozer. Pandemiak erakutsi zuenez, gabeziak ditugu alde horretan, bai formakuntza aldetik, bai metodologia aldetik, bai aukeren analisiaren aldetik. Zentzu horretan, gazteek esaten digute, zehazki, erabiltzen ditugun komunikazio-bideak ez direla horrenbeste iristen berengana.

9. Erreferentziazko komunitatea

Boluntarioei galdetzen diegunean ea non identifikatzen diren, beren zeregina gauzaten duten lan-arloarekiko erlazioan, erabakigarria da, argi eta garbi, adinaren aldagaia (eta horrek dakarren guztia). Adinean behera egin ahala, ahulduz doa Parrokiaren parte izatearen sentimendua. Egia da proiektu asko gure Parrokietan garatzen direla, baina adierazle garrantzitsua da, adinean behera egin ahala, boluntarioek beren burua identifikatzean sentitzea hein txikiagoan direla Parrokia eta hein handiagoan proiektu. Horrek ez du esan nahi etorkizunean boluntario izango diren pertsona zaharragoak, zaharrago izateagatik soilik, Parrokiaren bitartez egingo direnik boluntario.

Aipatzekoa da jendearen ehuneko handiak (batez ere gazteen artean) ez dakiela zer arlotan adskribatzen den bere boluntariotza (parrokia, proiektua, elizbarrutia...). Horrek adierazten du gutxiago identifikatzen direla erakundearekin, eta lotura handiagoa dutela zeregin konketuarekin.

3. grafikoa: Boluntarioen lan-esparruak



Iturria: Boluntariotzari buruzko II. inkesta konfederala, 2022

Gero eta hein handiagoan, erreferentziazko (eta ekintzaren) komunitateek, hala nola parrokia eta haren hurbileko zirkuluek, osagarri izango dute komunitate lausoagoa (globala, digitala, ez hain geografikoa...), bizi-espazio gisa. Pertsonak ez badira komunitate jakin batekoak, baina haren ekintza boluntarioan parte hartu nahi badute, haien eraginez, ekintza hori gehiago irekiko da ekintzarekin konprometitzeko modu lausoago horien balioetara. Loturen eta motibazioen heterogeneotasunak eraldatu egingo du orain arte komunitatea ulertu izan dugun modua.

10. Zirkulu bertutetsuaren plana

Hiru dira boluntarioek kontuan izateko eskatzen dizkiguten lanaren gakoak: zaintza, zeregina eta formakuntza. Dinamika zirkular horretan, *zaintza* da boluntarioei laguntza ematea iristean, garapenean, irtetean, eta baita dagoeneko ez daudenean ere (gaixotasuna, jarraitzeko ezintasuna...). *Zaintza* da beren funtzioa balioestea, errekonozimendua sustatzea; *zaintza* da elkartzeko espazioak eta harreman pertsonalak bultzatzea, elkarrekin askoz gehiago garelako. *Zeregina* da horretarako baliabideak ematea, bai giza baliabideak, bai teknikoak eta ekonomikoak; *zeregina* da burokrazia murriztea; *zeregina* da gure informazio-mailak hobetzea. *Formakuntza* da eskaintza handitzea; *formakuntza* da formatuen eta metodologiaren kalitatea hobetzea.

Laburbilduz, adinean aurrera goaz, eta gertatzen ari den erreleboak adierazten du intentsitate desberdineko konpromisoa datorrela, aniztasun handiagoko izaera duena eta etengabe mugitzen ari dena. Horri lotuta, leku pribilegiatua du gure egunerokotasunean izan garenaren eta izan nahi dugunaren balioen transmisioak, gure egoteko moduan lehentasuna ematen baitaio erlazionala denari, besteekiko bizikidetzari. Egoteko modu horrek, gero eta gehiago, izatearen eta egitearen parte bihurtzen ditu parte-hartzaileak, irekita eta askotariko esparruetara begira dagoen komunitatea eraikitzearen bitartez. Eta, amaitzeko, mantendu egin behar ditugu ikaskuntzaren, laguntzaren eta komunikazioaren inguruan egiten ditugun esfortzuak, eta pauso bat gehiago eman, gero eta anitzagoak diren errealitateetara iristeko. Esfortzu horiek, boluntariotzaren arloan, zaintzaren, zereginaren eta formakuntzaren zirkulu bertutetsu hori osatzen dute.

2. EPAITU (baloratu)

<<Orduan, erregeak eskuinean zituenei esan zien: "Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; har ezazue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoen erreinua. Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri". Orduan, zintzoek esan zioten: "Jauna, baina noiz aurkitu zintugun arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zintugun gaixo edo kartzelan, eta ikustera joan?" Eta erregeak erantzun zien: "Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena egin zenidaten neuri".>> (Mt. 25,34-40)

Hortaz, begirada nora zuzendu jakitea da datozen urteetan gure inspirazio izan behar duen ostertza. 2015ean, gure gotzainek "Eliza, pobreen zerbitzari" Gutun Pastoral eman ziguten, honetara animatzeko: "...konbertsio-jarrera hartzera, Frantzisko aita santuak proposatzen digun bezala: «Espero dut komunitate guztiak saiatuko direla beharrezko bitartekoak jartzen, konbertsiozko pastoral misiolari baten bidean aurrera egiteko, gauzak ezin baitira utzi dauden bezala»". Bizi dugun errealitatearen emaitzatat dugu gure erronka handiak elkar atzeraelikatzen duten bost esfera handitan laburtu daitezkeela.⁶

1. Aniztasunaren eta malgutasunaren esfera

Pertsona boluntarioen errealitatean, eta garai-aldaketaren emaitza den une honetan, aniztasun handiko egoera ari da gertatzen: landakoa-hirikoa, adinekoak-gazteak, parrokiak-proiektuak, boluntario parte-hartzaileak, boluntario fedegabeak edo beste erlijio batzuetakoak, luzaroko konpromisoak - konpromiso puntualagoak, enpresen eta unibertsitateen kolaborazioak, boluntariotza eta horren lotura denbora librearekin... Hain anitzak diren horrenbeste errealitateri heltzeko beharra agertzen zaigu, ekintza boluntario eraldatzailea animatu eta bultzatzeko, horrek sortzen baitu Jainkoaren Erreinua.

Boluntarioei egindako II. Inkesta Konfederalean eta Formakuntzaren eta Boluntariotzaren Arduradunen VII. Topaketan, gorago azaldukoari jarraituz, argi ikusi zen pertsona boluntarioen profila berriro definitu behar zela, modu irekiagoan eta pluralagoan, gai izan gaitezen egokitzeko boluntario izan nahian hurbiltzen zaizkigun pertsonen beharrak eta gaitasunak.

Ezin dugu ahaztu beharrezkoa dela boluntariotza irekitzea enpresen eta hezkuntzaren mundura. Esparru batekin zein bestearekin harremanetan jarri behar

⁶ Hausnarketa honetan hainbat ekarpen biltzen dira, bai Zuzendaritza Taldeek egindakoak, bai Elizbarrutiko Caritasetako boluntariotza- eta formakuntza-arduradunek egindakoak.

dugu, elkarguneak eta leku komunak bilatzeko.

Bestalde, loturak Caritasen duen garrantziaren eta balioaren barruan, ezin daiteke falta boluntario zaharrenen eta gazteenen belaunaldien arteko loturak bultzatzearen aldeko apustua, lehenengoen beren esperientzia partekatu baitezakete, eta bigarrenek lekua aurkitzen baitute beren gaitasunak eta potentzialtasunak gogoz zabaltzeko.

2. Identitatearen eta zentzuaren esfera

Esfera honetan, norabide bikoitzeko proposamena aurkitzen dugu; alde batetik, gauzak *nondik* egiten ditugun, zerk mugiarazten, bultzatzen eta animatzen dituen pertsona boluntarioak; beste aldetik, *norantz* egiten ditugun gauzak, zertarako egiten ditugun, nora garamatzen Caritasen ekintzak. Boluntariotzaren inguruko galderak beste galdera batera garamatza: *zertarako* eta *nolako*a izan behar duen boluntarioak protagonista dituen Caritasen ekintzak. Ez du balio pertsona boluntarioak irabaztea, ez baldin badiogu galdetzen geure buruari zertarako, eta gure ekintza ez baldin badator bat gure Gizarte Ekintzaren Ereduarekin.

Bi aurpegiko txanpona da, eta biek dute garrantzi bera. Nolabait esatearren, zuhaitzaren sustraiak zein fruituak aztertu, egiaztatu eta berrikustea da.

Erronka garrantzitsua da egokitzea edo errealitatea eraldatzen laguntzea, gure erroak galdu gabe. Pertsona boluntarioa identifikatu egiten da pentsatzeko eta Caritasen barruan ekiteko modu jakin batekin, eta ez da arazoa sinesmen edo ideia berak ez izatea. Gure balio kristauek, Jainkoarekiko eta hurkoarekiko maitasuna delarik muina, aukera ematen digute zentzuren batean Caritasen bat egiten duten pertsona asko hartzeko eta haiekin konektatzeko, nahiz eta hainbat lekutatik etorri. Horretan datza gure esentziaren eta boluntarioak erakartzeko gaitasunaren zati handi bat. Hori bai, gure ekintzari zentzua emateko, funtsezkoa da etengabeko koordinazioa eta laguntza.

3. Parte-hartzearen eta komunitatearen esfera

Parte-hartzea eta komunitatea elkarren eskutik doazen bi elementu dira, eta elkar atzeraelikatzen dira. Interesgarria da parte-hartzearen eredu eta gure Caritasetan hura gauzatzen den edo gauzatu litekeen espazioak eta formatuak berrikustea. Pertsona boluntarioen benetako parte-hartzea proposatzeak edo parte-hartzea pertsona parte-hartzaile guztiei zabaltzeak adierazten dute gure ekintzaren komunitate-dimentsioa. Parte-hartzeak komunitatea sortzen du, eta komunitateak parte-hartzea sortzen du. Komunitateez hitz egiten dugunean, ez gara ari komunitate



Caritas

kristauetz edo parrokia-komunitateez (haiei buruz ere bai), baizik eta komunitateez, zentzu zabalagoan.

Formatu ireki eta zabaleko hausnarketa-espazioak sortu beharko lirateke, pertsona boluntarioek aukera izan dezaten beren ekintza birplanteatzeko, aintzat hartuta komunitate-dimentsio hori ere. Horrez gain, pertsona boluntarioen, kontratatutako pertsonen, apaizen eta parte-hartzaileen arteko bide komun berriak bilatu behar dira, elkarren eskutik joateko. Komunitatearen inguruko begiradak barrura zein kanpora begiratu behar du, aliantzak sortzeko beste erakunde eta komunitate batzuekin.

4. Laguntzaren eta formakuntzaren esfera

Ekintza boluntarioa finkatzeko prozesuan, ezinbestekoak dira laguntza eta formakuntza, gako-elementuak baitira. Nola laguntzen diogun aniztasunari eta zer formakuntza proposatzen dugun, zentzudun ekintza eskaintzeko.

Laguntza kontzeptua berriz definitu behar da. Guri dagokigu hausnartzea ea gure harrerak askotariko profiletara egokitzen diren. Garrantzitsua da kontzientzia hartzea ibilbide bakarretik aniztasunari hobeto erantzuten dioten zenbait ibilbidetara aldatzearen inguruan. Pertsona boluntarioek eta haien ekintzak lehentasuna dute gure Erakundearen, eta arreta handia eskaini behar diegu denbora luzez beren bizitza Parrokietako Caritasei eman dieten pertsoneri.

Formakuntzaren strategiari dagokionez, berrikuntza konstante bat izango da, eta profil eta adin berrietara egokituko da, edukiei garrantzia emanaz teknologia berrien gaintik, baina azken horiek ahaztu gabe. Pertsona boluntarioei beren beharren inguruan galdetu behar diegu, une bakoitzean behar dutenera hobeto moldatzeko. Pertsona eta talde bakoitzaren errealitatera gehiago egokitzen den laguntza- eta formakuntza-eredu bat behar dugu.

5. Antolakuntzaren eta aukeren esfera

Lan hori guztia ez da egin behar soilik pertsonentzat eta pertsonekin; aitzitik, antolakuntza ere zalantzan jarri behar da nolabait. Ekintza boluntarioari buruz hausnartzeak eta hura berrikustea esan nahi du Caritas osoaz hausnartzea eta hura berrikustea. Eta, dudarik gabe, aukeratzea eramango gaitu. Egoera alda dadin, guk ere aldatu egin behar dugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da aukeratzea, lehentasunak zehaztea, baliabideen esleipena berrikustea eta behar bezainbeste pertsona kualifikatu izatea boluntarioei laguntzeko. Sarritan, gure Caritasetan boluntarioek duten garrantziari buruzko diskurtsoak ez du berekin ekarri behar



nahikoa pertsonaren zaintza eta arduraldia.

Kanporantz doan Elizari buruz pentsatzeak gogoeta egitera animatzen gaitu, pentsatzeko nola heldu gaitezkeen boluntario izateko interesa duten pertsonengana. Ez dugu espero izan behar boluntarioek gugana etortzen jarraituko dutenik, orain arte bezala. Ezinbestekoa da hurbiltze-estrategia berriak diseinatzea, haien bidera irteteko.

Caritasetik, Eliza berri bat osatzeko dei egiten zaigu, inguratzen gaituen errealitatera egokitzen den Eliza berria. Aldaketa horrek berekin ekarri behar ditu egitura dinamikoagoak, non erabaki praktikoak hartuko baitira beharrezko aldaketak egin ahal izateko. Asanblada eta taldeko lan gisa hartzen diren eta inplikaturako pertsona guztien parte-hartzea sustatzen duten erabakiak. Hori guztia posible izan dadin, behar adina baliabide eskaini behar dira, bai ekonomikoak, bai giza baliabideak. Horretan oinarritzen dira gainerako erronka guztiak.

4. EKIN

Bost esfera tematiko handik osatzen dute datozen urteetako gure boluntariotza-, formakuntza- eta laguntza-taldeetan egin beharreko lanaren edukia.

Orain da ekiteko unea. Horren handia da planteatutako erronken multzoa, non erakundeko agenteen ezagutzaren esfortzu hitzartua behar baita erronka horietako bakoitzari zehazki nola heldu argitzeko. Behin zehaztuta zer esferatara zuzendu behar den begirada, “nola egin” garatu behar dugu. Argi eta garbi azaldu behar dugu zer metodologia, esperientzia, modu eta proposamen gauzatu behar diren boluntariotzaren arloko etorkizuneko gure jokabidea orientatzeko, eta bizitzen ari garen garai-aldaketari erantzuteko.

“Nola egin” horiek zehazteko, kontuan izan behar dugu hau guztia:

- Ezinbestekoa da “nola egin” horiek argi eta garbi uztea boluntariotzak berebiziko garrantzia duela Caritasen. Erakundearen esentziaren parte da, eta, nahiz eta oso teknifikatutako eta diru publikoarekin finantzatutako proiektuak garatzeak inertziara bultza gaitzakeen, horrek ez du murriztu behar boluntarioen presentzia.
- Pertsona boluntarioek presente egon behar dute proiektuak pentsatzeko prozesuaren hasiera-hasieratik.
- “Ekite” horren helburua izan dadila Elizbarrutiko eta Eskualdeko Caritas guztiei orientazioa ematea, beren plan propioak garatzeko.
- Elkarrekin pentsatzeak Caritas batzuen eta besteen erritmoak errespetatu behar ditu, eta zenbait planotatik eraiki behar da aldi berean.
- Ezinbestekoa da Caritasetik kanpokoak diren ahotsekin kontrastatzea, prestaketa-prozesuan zehar.
- Haien eraikuntzaren denborazko ostertzak Espainiako Caritasen hurrengo Plan Estrategiko Konfederalaren (2025) epeak hartu ditzake inspirazio gisa. Dena dela, lehentasuna du hura ulertzen eta partekatzen joateak eta, horretarako, ostertz horretan kontuan hartu behar da malgutasuna.
- Erabiltzen den metodologia parte-hartzailea izatea, Konfederazioko lurralde guztietan. Lan-prozesuak erraza izan behar du, eta behetik gora garatu behar da.

- Diseinatzen dugun amaierako estrategiak ez ahaztea biak direla garrantzitsuak: bai emaitza, bai hura eraikitzeke egiten dugun bidea.

Denbora dugu aurretik, elkarrekin eraikitzeke egin beharrekoa, bizitzen ari garen garai berri honetan Caritasen boluntariotzaren misioaren zentzuak eta zereginak indarra eta inspirazioa izaten jarraitu dezaten.

Itxiera (behin-behinekoa)

Honaino heltzen da oraingoz egindako eta partekatutako lana, baina prozesuak aurrera darrai. Batzarraren ekarpenekin eta hausnarketarekin batera, lan polita geratuko zaigu aurretik. Ekinez aurrera egiten jarraitzea eta ospatzea proposatzea, duela gutxi esan dugun bezala. Datozen urteetarako boluntariotzaren ostertza komunitate gisa eraikitzen saiatzea.

Espero dugu une hau aukera bat izatea pertsona boluntarioentzat, Caritasentzat eta Jainkoak gure bitartez gauzatu nahi duen proposamenarentzat. Gure boluntariotzaren indarra pertsonentzako aukera da, eta itxaropena.